



EMAKUMEAK LANDA-EREMUAN

*Gizon eta emakumeen arteko
desberdintasun
sozioekonomikoak
Gipuzkoako landa-giroko
herrietan*

2017ko azaroa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socioeconómico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

PROBLEMATIKA

Gipuzkoa orografia bihurrikoa izan arren, bere bailarek historia sozioekonomiko aberatsa dute, oso lotuak industriari eta merkataritzari. Azken ehun urteak industrializazio handikoak izan dira gure bailaretan eta erabateko eragina izan dute egungo dimentsio sozioekonomiko nagusietan.

Orain arte ezagutu dugun industrializazio prozesuak, ordea, lanari lotutako sexu segregazioa ekarri du. Hau da, gizonak industriari eta emakumeak etxeko lanetara edo aitortza profesional txikiagoko jardueretara bideratzen zituen eredua. Ereduek, ordea, gabezia sozial handiak eta lurralde mailako dinamika kezkarriak ere eragiten ditu. Egungo argazki sozioekonomikoak azken 60 urtetako ibilbide sozioekonomikoaren ondorioak ageri ditu. Besteak beste,

- Emakume gazteen exodoa herri txikietatik hiri handietara, aukera profesional berrien bila.
- Etxean lan egiten duen emakumearen pobretzea eta senarrarekiko mendekotasuna, are handiagoa etxeko haur eta helduen zaintzari lotzen bazaio.
- Biztanleria aktiboaren apaltzea, herritarren erdia praktikan jarduera “inaktibo” lotu zaizkionez.

Bilakaera honek bere garaiak izan ditu:


- II. Mundu Gerraren ondorengo legedia frankistak II. Errepublika garaiko emakumeen laneratzea atzundu egin zuen eta bere ondorioak gaurdaino iristen dira. Egoera honetan, emakumeen laneratzeak bereizketa nabarmena zekarren, emakumeak zerbitzuen alorreko eginkizunei lotuz, batik bat.
- 80ko hamarkadan bizi izandako krisialdi ekonomikoari industriaren aldeko apustu berritzailea eginez arrakastaz erantzun zitzaion. Ondorioz, herritarren formazio maila gero eta jasoagoa izateak emakumeen formazio maila handitzea ere ekarri zuen nahiz eta eredu ekonomiko hura ez zegoen prestatua herri txikienetan sektore berri horrentzat enplegua sortzeko. Gauzak horrela, azken hiru hamarkadetan Gipuzkoako bailarek oso industrialak izaten jarraitu dute, baina oro har, bere egitura produktiboak oso maskulinizatuak izan dira. Emakumeak gainerako sektoreetan egin dute bere ibilbide profesionala. Hiriburu eta eskualde buruetan oso kontzentratutako sektoreetan, hain zuzen.
- XXI. mendean landa-giroko herri eta auzoetan oso aintzat hartzeko ezaugarriak ageri dira, 2008ko krisi finantzarioaren ondoren manufaktura industrialak bizi izandako galerarekin. Besteak beste: Herritarren formazio eta lanbidean segregazio sexual agerikoa, jarduera ekonomiko teknologikoen kontzentrazioa puntu jakin batzuetan eta horrekin batera belaunaldi gazte eta formatueneren migrazioa, ikasteko zein lehen lan espeserentzietarako.

Gauzak horrela, herri txikietako metabolismo demografikoa zaintzea eta horren bitartez lurralde oreka gordetzea ezinbesteko helburua dira Gipuzkoarentzat, are gehiago distantzia erlatiboki laburrak direnean Horrek, besteak beste, gizon eta emakumeen arteko desberdintasun sozioekonomikoak gainditzeko bidean jartzea eskatzen du.

Esandakoa ulertzeko, ondoren hainbat datu.

GIPUZKOAKO GEOGRAFIA

Gipuzkoan landa-girokotzat jotzen den geografiak 120.000 biztanle hartzen ditu. Horietatik 40.000, 2.500 biztanletik beherako herrietan daude eta gainerakoak herri handiagoetako auzoetan. Gipuzkoako biztanleriaren %20 landa-giroko herri eta auzoetan bizi da (lurraldearen eremurik zabalena, Europako Batasuneko irizpideen arabera %44,3 –DEGURBA indizea).



2.500 biztanletik gorako udalerrietako sekzioak

- Hirigunea (533.274 biztanle)
- Bitarteko hirigunea (61.468 biztanle)
- Landa eremua (84.917 biztanle)
- 2.500 biztanletik beherako udalerriak (39.324 biztanle)

> OHARRA: Dokumentu hau GAINDEGIAK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARENTZAT egindako lan zabalago baten laburpena da. Bertan aipatzen diren datuek EUSTAT eta INEko datuetan dute jatorria.


DEMOGRAFIA

Joera sozioekonomikoek eragin garrantzitsua izaten dute demografian. Ondorioetako bat biztanleen desplazamendua izaten da, lan aukera berrien edo bizimodu berri baten bila. Gipuzkoako landa eremuak halakoak bizi izan ditu. Iraganean (neskame joan behar izan zuen emakume askok), bai eta gaur egun ere.

Herri txikietako haur eta gazteen indizeak positiboak izan arren, biztanle galera medio, metabolismo demografiko osasuntsu bat gordetzeko zailtasunak dituzte biztanle galera medio.

Honekin batera doazen taulak ondorio argiak uzten dizkigu:

- 80. hamarkadan laneratu zen belaunaldiaren defizita (gaur egun 45 urtetik gorakoak). Gogoan izan krisian zegoen enplegu gutxiko eta are dibertsitate gutxiagoko ekonomian hasi zirela lan bila.
- Gaur egun, formazio eta enplegu eskaintza berritzaileenak dituzten eskualdeetako herri txikietan dago emakume gazteen artean baja gutxien (Debagoiena eta Goierri).



FORMAZIOA


Gaur egungo euskal gizarteak ezaugarri nabarmenik baldin badu, hau, herritarren formazio maila jasoa da (Lanbide heziketako goi ziklo eta unibertsitate mailako titulazioen bidez, batik bat).

Egoera hau berria da gure historian, eta are gehiago emakumeen artean. Frankismoak lan merkatuari begira ezarritako segregazio sexualak ondorio larriak izan zituen. Adibidetarako, landa-giroko herrietan neskame joandako belaunaldiaren kasuistika.

Ikasketa mailak hautatzerakoan sexuen arabera bereizketak indar handia du oraindik. Eraginkortasun ekonomiko handieneko sektore ekonomikoetan emakume gutxiago dago. Aldiz, baldintza prekarioenak eskaintzen dituzten sektoreetan emakumeen presentzia nagusi da.

Eskura ditugun azken datuen arabera (2011), landa-giroko udalerrietan muturreko ikasketa mailak dira feminizatuenak ("ikasketarik gabekoak" eta unibertsitate mailakoak). Aldiz, lehen eta bigarren graduako titulazioetan (Lanbide Heziketa barne) gizonen emakumeak baino gehiago dira hortxe baitago industriako enplegu kualifikatuaren titulazioa.

Landa-giroko udalerrietan lehen graduako ikasketak dituztenen artean emakumeen presentzia apalagoa da. Hau da, titulazio hori duten emakumeen multzo batek beste herri batera jo du bizitzera. Herri txikiak emakume gazteen galera nabarmen ikusten da honetan. Hots, oinarriko titulazioa dutenak beste udalerrri bat bilatzen dute, aldiz, goi titulazioa dutenak herri txikietan gelditzen dira edo herri txikietara jotzen dute. Debagoieneko herri txikiak dira, alde horretatik salbuespena (udalerrri txikien joera apurtzen dute).




ENPLEGUA, AKTIBOTASUNA

Lana eta enplegua ez dira gauza bera. Ongi dakite hori baserrian bizi direnek. Edonola ere, ongien dakitenak emakumeak dira, izan ere, ordainpeko enpleguaren erregistroari dagokionez gure gizartean “inaktiboan” multzoan dauden gehienak emakumeak dira. Herri txikiak gainerakoekin alderatuz diferentzia nabarmena da. Herri txikietan gainontzeko udalerrietan baino ia zortzi puntu gehiago ditu inaktibitatearen feminizazioak. Aldea are nabariagoa da Tolosaldeko eta Debabarreneko herrietan.

Inaktibotasuna belaunaldika aztertzen eta herri txikiak gainerakoekin konparatzen ikusten da inaktibotasuna handiagoa dela herri txikietan amatasunari lotzen gatzazkion urteetan (30 eta 44 urte bitarteko kolektiboan, alegia). Zenbait kasutan diferentziak 30 puntutakoak (Debabarrena) eta 20 puntutakoak izatera iristen dira (Tolosaldea eta Goierri). Honek hausnarketa sakona eskatzen du, besteak beste, udalerrri handiangoetan posible dena zergatik ez da posible herri txikiangoetan? Haur eskolen urruntasunagatik? Enplegu aukeren urruntasunagatik? Edonola ere, laneratzea horren modu larrian eteteak egitura mailako ondorioak ditu gure herrian, zeresanik ez emakumezko horien ibilbide profesionalean.

Egoera hau are larriagoa egiten duten osagai gehiago hartu behar da aintzat. Izan ere, langabezia batez ere femeninoa da herri txikietan, gainontzekoetan baino ia lau puntu gehiago.



Iturria: EUSTAT eta INE

EZ-AKTIBOTASUNAREN FEMINIZAZIOA, BELAUNLDIEN ARABERA (%). GIPUZKOA, 2016 URTEA

Adina:	16-24	25-29	30-34	35-39	40-44	45-49	50-54	55-59	60-64	OROTARA (16-64)
GIPUZKOA	49,2	48,5	51,8	57,6	56,7	62,8	65,1	63,2	56,5	53,4
Tamaina txikiko udalerriak	49,8	48,5	58,7	68,4	60,8	62,1	62,2	62,7	48,7	53,2
Gainontzeko udalerriak	49,1	48,5	51,4	57,0	56,5	62,8	65,3	63,3	56,9	53,4
Tamaina txikiko udalerriak (<2.500 bizt.)										
Debabarrenako udal. txiki	60,0	36,4	87,5	53,3	75,0	73,7	77,8	77,8	59,6	63,0
Debagoienako udal. txiki	52,0	46,2	75,0	50,0	66,7	50,0	66,7	60,4	49,1	53,1
Goierriko udal. txiki	49,0	52,1	53,8	77,6	50,0	63,0	55,5	64,9	49,2	52,3
Tolosaldeako udal. txiki	48,6	47,4	56,6	70,1	66,2	61,5	65,0	61,1	48,2	52,9
Urola-Kost. udal. txiki	51,7	46,2	66,7	57,6	56,3	66,7	60,0	59,6	42,4	53,2

***Datua: %55,4**

EZ-AKTIBOTASUNAREN
FEMINIZAZIOA GIPUZKOAN,
30-44 URTE BITARTEAN.





Iturria: EUSTAT eta INE

> OHARRA: Dokumentu hau GAINDEGIAK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ZAT egindako lan zabalago baten laburpena da. Bertan aipatzen diren datuek EUSTAT eta INEko datuetan dute jatorria.

LANBIDEAK

Honek guztiak isla argia du lanbideen feminizazio mailari erreparatuz. Lanbide feminizatuenak are feminizatuagoak dira herri txikietan (zerbitzari, dendari, administrari, irakasle, erizain, teknikari eta profesional zientifikoak...). Beraz, prekarizazioaren eragina ere bai. Formazioan ikusi dugun argazkiaren segida da errenta mailan azaltzen dena.

Ez genuke gutxietsi behar egoera hau, izan ere, feminizazio maila handieneko dedikazio kategoriak bi dira (lanbide-egoerari erreparatuz): aldi bateko enplegua dutenak eta senide baten enpresan lan egiten dutenak araututako ordain ekonomikorik jaso gabe. Gainerako lanbide kategoriatan (enpresaburu, autonomo, kooperatibista, soldatapeko) emakumeen proportzioa nabarmen apalagoa da. Gaitasun guztien jabe izan arren, emakumeen lan egoera nabarmen okerragoa da, udalerrri txikienetan nabarmenago, baita ekintzailetzari lotutako dedikazioetan ere (kooperatibistak, autonomoak eta enpresaburuak).



> OHARRA: Dokumentu hau GAINDEGIAK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARENZAT egindako lan zabalago baten laburpena da. Bertan aipatzen diren datuek EUSTAT eta INEko datuetan dute jatorria.

ERRENTA

Autonomia ekonomikoa, pertsona helduen oinarritzko zutabea da mendebaldeko gizartean. Pertsonaren formazio eta aktibitate mailak erabateko lotura dute, beraz, errenta mailarekin. Gure artean dauden patroi sexistek, ordea, ez dute errazten emakume askoren kasuan gizonetzkoen pareko errenta maila izatea.

Errenta erabilgarriari erreparaturik emakumeen kasuan, gizonetzkoena baino nabarmen apalagoa da, eta landa-giroko emakumeen artean aldea are handiagoa da.

Hala eta guztiz ere, DSBE-RGI hartzaileen feminizazio maila txikiagoa da landa-giroko herrietan. Datu honen kausa aztertzea da. Izan ere, badakigu muturreko pobrezia hiri handietan metatzen dela, baina honek ez du esan nahi herri txikietako egoera hobea denik.



EMAKUMEZKOEN ERRENTA ERABILGARRIA, GIZONEZKOEKIKO ALDERATUTA (%). GIPIZKOA, 2001-2014 EPEALDIA

Urtea:	2001	2003	2006	2009	2011	2013	2014
GIPIZKOA	47,7	49,9	54,0	58,4	61,1	63,1	63,5
Tamaina txikiko udalerrriak	40,8	44,3	48,1	52,8	55,9	56,7	56,1
Gainontzeko udalerrriak	48,0	50,1	54,3	58,7	61,4	63,5	64,0
Tamaina txikiko udalerrriak (<2.500 bizt.)							
Debabarrenako udal. txiki	40,1	44,9	48,0	52,3	53,2	53,4	53,3
Debagoienako udal. txiki	43,8	46,7	52,1	54,0	57,6	58,8	57,7
Goierriko udal. txiki	40,4	43,9	46,9	52,2	54,5	55,5	54,5
Tolosaldeako udal. txiki	39,9	43,4	47,4	52,4	55,9	56,8	56,8
Urola-Kost. udal. txiki	43,0	46,3	51,2	55,1	61,0	60,8	59,6
DEGURBA sailkapena							
Landa-eremua	42,2	45,3	49,5	54,1	57,5	58,4	58,2
Bitarteko hirigunea	44,2	46,7	50,7	55,5	58,4	60,2	60,4
Hirigunea	53,8	55,4	59,2	63,4	65,8	68,3	69,3

KOKAPENA

Gipuzkoa nahikoa ongi orekatutako lurraldea da zerbitzu publikoen hurbiltasunari dagokionez. Badaude diferentziak ordea, herri txikiak gainerako udalerririk baino urrunago daude zerbitzu eta gune urbano indartsuenetik, eta horrek baditu bere ondorioak.

Diferentzia hori nabaria da lan merkatuari erreparatzen badiogu, izan ere, azken urteotako espezializazioak ezagumenduan intentsiboak diren jarduera gehienak hiriburuen ingurura edo udalerririk handienetara eraman ditu. Gauzak horrela, distantziak esan nahi handia har dezake pertsonak hautatzen duen ibilbidearen arabera, are gehiago emakumearen kasuan, gaur egun oraindik zaintza lanak bere bizkar gelditu ohi direnean, eta beraz, etxeko ardurak eta profesionalak bateratzeak jardueren aniztasuna hurbil izatea eskatzen dute. Tolosaldean eta Urolan dago geografiarik kritikoena alde horretatik.




> OHARRA: Dokumentu hau GAINDEGIAK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ZAT egindako lan zabalago baten laburpena da. Bertan aipatzen diren datuek EUSTAT eta INEko datuetan dute jatorria.

MUGIKORTASUNA

Mugikortasunak berebiziko garrantzia du pertsonen garapen sozial eta profesionalean. Landa-giroko herrietan, oro har, gainontzeko udalerrietan baino gehiago dira gidabaimena duten emakumeak.

Edonola ere, gizonezkoen artean ia ez dago alderik landa-giroa eta gainerako udalerrien artean. Gizonezkoen artean gidabaimena hamarretik ia bederatzik dute, emakumeen artean, ordea, hamarretik zazpi izatera ez dira iristen landa-giroko herrietan, nahiz eta distantziak handiak izan eta hamarkada asko diren landa-giroko emakumeek motordun ibilgailuen erabilera bere egin zutela.



> OHARRA: Dokumentu hau GAINDEGIAK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN TZAT egindako lan zabalago baten laburpena da. Bertan aipatzen diren datuek EUSTAT eta INEko datuetan dute jatorria.